

Zuzendaritza-batzordearen erdia ekainaren 20ko batzarrean berrituko dugu

Covid-19 pandemiaren ondorioz 2020ko Bazkideen Batzar Orokorra ezin izan genuen burutu eta egin gabe geratu zen iaz tokatzen zen zuzendaritza-batzordearen berritzea. Aurten bai. Ekainaren 20ko batzar orokorrak zuzendaritza batzordearen erdia eta eskualdeko sei ordezkarietatik hiru berritzeari ekingo dio, Tolosaldeko, Beterriko eta Goierriko ordezkariak, hain zuzen ere.

Jone Maioz (Tolosaldea), Jexux Aduriz (Beterri) eta Juan Mari Arin (Goierri) dira ordezkariak berrituko duten eskualdeko hiru ordezkariak. Hiru horien ordezkapena edo jarraipena, ohi bezala, Azpeitiko Soreasu pilotalekuan ekainaren 20an egingo den batzarraren aurreko eskualdeko bileretan aztertuko da.

Halaber, ekaineko batzar orokorrean, diruzain (Jon Mikel Murua) eta lehendakariorde (Joxe Manuel Oria) postuak berritzeari buruz ere hitz egingo dugu.

2020an berritu behar zituzten GEBEko bost postu horiek, baina bertan behera geratu ziren, batzarra bertan behera geratu zelako, pandemiagatik. Batzarrean, ohiko moduan, bazkideek aurreko ekitaldietako kontuak eta aurtengo aurrekontua onartu beharko dituzte eta zuzendaritzak elkarrearen jardueren berri emango du.

Jakingo duzueenez, GEBEko zuzendaritza batzordearen erdia bi urtean behin berritzen da, baita eskualdeko sei ordezkarietatik erdia ere.

Zuzendaritza batzordea horrela dago osatuta gaur egun:

Lehendakari: Juan Carlos Berraondo (2022)

Lehendakariorde: José Manuel Oria (berritu beharrekoa)

Idazkari: Felipe Lizaur (2022)

Diruzain: Jon Mikel Murua (berritu beharrekoa)

Eskualdeetako ordezkariak:

Tolosaldea: Jone Maioz (berritu beharrekoa)

Beterri: Jexux Aduriz (berritu beharrekoa)

Goierrri: Juan Mari Arin (berritu beharrekoa)

Debagaraia: Andoni Altuna (2022)

Debabehekoa: Xabier Zubiaurre (2022)

Uroka Kosta: Julian Unanue (2022)



GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA